# 1. Kabalkadaren pertsonaiak

## “Nahas-mahas” jardueraren zuzentzeko txostena




KABALKADA BIZI EZAN/K

# Zapurrak



| Materiala | Jantziak |
|---|---|
| Aizkora | Taulier |
| Iletsu | Sorbaldakoak |
| Lumak | Kaskoa |

“Après vêpres, en effet, sur la scène classique formée par plancher posé sur des barriques, se déroula la partie la plus importante et la plus intéressante de cette fête. Suivant l’usage, quatre personnages, vêtus d’habits les plus fantaisistes, coiffés de casques de dragons datant du premier Empire et portant une hache sur l’épaule, se tiennent aux quatres angles de cette estrade de fortune, immobiles et impassibles même à la vue des scènes les plus burlesques qui se déroulent sous leurs yeux, en apparence indifférents.”

NOGARET Joseph Une parade charivarique à Estérençubi. 1926, Bulletin du Musée basque n°1-2
https://prentsa.bilketa.eus/ark:/27020/bmb42?posInSet=34&queryId=e59a3bac-73ec-46c5-ae7e-72419676bd66

# Zapurrak, Napoleonen armada






Sergent Tania. Garde Impériale. Anne SK Brown Military Collection, Brown University Library

Argazkiari buruz: «photos des rescapés de Waterloo (...) Les chercheurs de l'Université Brown imaginent donc que ces clichés datent de 1858»

Iturria: https://laprovence.shorthandstories.com/napoleon/en-images/

# Gorri banderariak



Itsasuko kabalkada, 2007
Oier Araolaza

## Materiala

Bandera: batzutan ikurrina ikusten, arrano beltza, nafarroakoa,...

## Jantziak

Jaka gorria
Bonet gorria

"Banderazainak kaporalak edo sarjentak dira. Hauek dute manatzen, kabalkada biltzen edo desegiten. Intendentziaren ardura dute eta diruzainekin egin behar dute lan. Praktikoki kabalkada hauek dute muntatu. Ikusten dira argazkietan harro, muztatxak zut, bere kabalkada erakusten. Hauek zaindu behar dute denek eskularruak badituztenez, xingola guziak, zerbait falta denez. (...)"

LUKU Antton. Libertitzea, 228. orrialdea

# Basandereak



<u>Materiala</u>

<u>Jantziak</u>

Zaia bolantadunak
txapel zabal handiak
Belo batzuk aurpegiak estaltzeko

"Zigante eta basandereak gelditzen zaizkigu. Hauek digute ere buru hauste gehienik eman bi gerle artean eta 1950 urteetan material berriak ateratzearekin jantziak biziki aldatu dira. Nor dira? Basanderea argi da. Haxerihargaitzek ganderailua ebatsi zion hura. Zer nahi leienda kurritzen da oraino ere horiei buruz, basajaunak edo hartzak berdin neska bat ebasten zuen eta leizean bahitzen bere umeen ama egiteko. Basajaunaren alaba ere bada urrezko orraziarekin iresten baita egun eguzkitsuetan.(...)

"Basanderea mutikoek zuten antzezten denboran alabainan, neskek ez zutelako dantzatzen. Usaia atxiki da mutikoak bezala dantzatzen duen neska ezartzeko hor. Entrexatak zabal eta neska luxu eta zainarta. (...) Basandereek, euskaldunak sorginak ematen dituzte mutikoekin eta ez da batasuna problemarik behar.
Basanderearen jantzia biziki aldatu zela erran nion, (...). Anderea denez jantzi aski landua behar duela uste dut. (...) ene ustez izpiritua atxikiz: natura jantzia da, basanderea bolanta bezain dantzari da, baita bolanta eta zirtzilen artekoa. Zalutasuna basatik datorkio. Pentsatua izan da zaia superposizio ezberdinek atributu guzien biltzea, sintesia bezala. Latza behar du ere materialean. Bi gerlen artean biziki maite zituzten basandere morixkak, erran nahi baitu ijito aire, (...)

LUKU Antton. Libertitzeaz, 231. orrialdea

# Andere zuriak



<u>Materiala</u>

Haizemailea

Beloak

<u>Jantziak</u>

Zaia zuri bolantadunak

Txapel zuri zabal handiak

Belo zuri batzuk aurpegiak estaltzeko

“Basandereen infrentzuzkoak: hiriko anderen egitekoak, bertzek basa aire bat zutelarik. Kaskarot martxetan, andere xuriek jauzi egiteko ordez elgar agurtzen zuten.”

ITCAINA Xabier , Baigurako bolantak, toberak eta ohidura dantzatuak Irisarrin

# Bolantak



<u>Materiala</u>

Erret-makila

<u>Jantziak</u>

Atorra
Galtzak
Gerrikoa
Panpa
Xingolak
Kuskuilak

“Bolanta apeza da edo xamana. Sua du ebasten, sua edo argia. Udaberria eta ihauteria. (...) Galtzek kuxkulak auskate zirtzil eta marmutxeriaren haizatzeko, ibilaldian sugearen farrasta erranen dutenak. Xingolak galtzetan txirikordatuak dira eta herensugearen ezkatak egiten. (...) Piarres Hegitoak kanta: “gero bolanten lerroak egiazko pinpirinak, tinki tinki gerrikoak, airean dira ibiltzen, oinez ez lurra hunkitzen besoak xuxen gelditzen.

Atorra pasatzen du. Gibelean xingola luzeak ontsa lisatuak. (...) Uste dut kabalkada guziek beren koloreak behar dituztela, beren marka. (...) Kabalkada ikusi behar da urrundik haizea ari delarik ulertzeko xingolek egiten duten lana. Itzultzean lotzen dituzte dantzariak bata besteari eta gorputz bat osatzen. (...)

“Papoan hedatuak etxeko urre guziak.” (...)

Gerrikoa ubela da, apezpikuen kolorea (...) Eskularruak ezartzen dira makil ttipiaren hartzeko. (...)

Dantzatu aitzin panpa gora janzten du. Honek bertikalitatea ematen du, handitzen du pertsonaia eta argia hartzen bere kopetako mirailean, eguzkiarekin solasean. (...)

Ez da panpa gorarekin berdin dantzatzen, ez makila eta eskularrauak eskuetan ere ez. Zamaltzaina bezala handikap batekin du dantzatzen bolantak. Buruaren posizio txar bat salatuko du panpak berehala, kolore berak galtzetan ukaiteak kontra erritmoan dena begi bistan ezartzen, xilintxak erritmo hutsa, makilak bereziki beso ez laxatua agerian ezartzen du, edo gorputzaren krispazio bat dantzari freskoegien marka da.

LUKU Antton. Libertitzea, 218-221. orrialdea

# Kaskarrotak







Itsasuko kabalkada, 2007
Oier Araolaza

<u>Jantziak</u>

Atorra
Galtzak
Gerrikoa
Xingolak
Kateak
Buneta

# Ziganteak



"Kabalkadako pertsonaiak harekin aipatzen nituelarik, Battitta Lazkoitik basajaunak deitu zituen. Eta segur naiz lapsus bat baino gehiago zela. Basanderearen aitzinetik eta luze... Ez daiteke besterik izan. Leizeetan sartzeko eta ateratzeko biziki handiak izan behar dira, bi istapez Behorlegitik Galarbera sartzeko ere bai."

LUKU Antton. Libertitzeaa, 231. orrialdea

# Bertsulariak



"Normalean soinuaren ondotik bertsolariak aipatu behar ziren. Leku beretik ari dira, erdiko atetik, neutroak dira. Anjel Aintziburuk dio xamarrez jantzirik agertu behar dutela, jujeen kolorea baita, hauen rola epaitzea da. Egiazko epaileak, ez toberakoak, hauek panpinak baitira edo maskak. (...)
Bertsolaria kanpokoa da egiazki,(...). Naturaltasunez lotura egiten du behatzaileelin, situazio honek ditu jendeak erakartzen, identifikarazten, ea zer erranen duen jenatzen gaituen gai bati buruz, bihar edo etzi gai berak gure bidea iraganen dueneko, eskaintzen digu erakaspen. Edo jarrera bederen. (...)
Kanpokoa da bertsolaria, gaia hor berean jakiten du.

LUKU Antton. Libertitzeaa, 223-225. orrialdea

"Mais voici que danse et musique cessent en même temps. Un homme vient de monter sur l'estrade : c'est un basque et un vrai ; son visage glabre et énergique, son attitude, son maintien dénotent un navarrais de pure race. A son assurance, à l'aisance avec laquelle il se meut, on reconnaît un personnage investi d'une mission. C'est, en effet, l'improvisateur ou "Koblari" qui, dans des strophes imprvisées, va exposer au public accouru de tous les coins de la montagne et massé autour de l'estrade, le sujet de la parade-charivarique dont il va voir la représentation.
Il commence d'une voix forte et claire que peuvent percevoir les plus éloignés et les couplets se suivent sans hésitation, entre-coupés de danses, tandis que les cavaliers font le tour de l'estrade pour maintenir à distance la foule toujours curieuse." Ici Larramendy de St Michel

NOGARET Joseph Une parade charivarique à Estérençubi. 1926, Bulletin du Musée basque n°1-2- https://prentsa.bilketa.eus/ark:/27020/bmb42?posInSet=34&queryId=e59a3bac-73ec-46c5-ae7e-72419676bd66

# Musikariak




Jantziak

Jantzi beltzak

Faustin Bentaberri



https://www.mintzoak.eus/eu/uharte-garazi/pasarteak/223-3/

## Sujetak, zirtzilak eta gortea





<u>Jantziak</u>

Jantzi koloretsuak
Trapu zatiak
Lastozko txapelak
Epaileen arropak
Ileordeak

# Xamarrak





Materiala

Jantziak

Baserritar jantziak

# Jauna eta anderea



"Boteretsu eta aberatsen sinboloak ziren. Gizonak, xenila (txapel zut beltza), makila eta puroa (pipa handia ere) zituen. Emaztea aldiz hiriko jantzi ederrez beztitua zen, abanikoa eta iguzkitakoa eskutan".

"Dantzaz ele", Garaztarrak 40 urte, Mixel Aurnague, Marcel Etchehandy, Annie Etcheverry-Bordarrampé, Antton Lucu eta Denise Olhagaray.

# Zaldunak edo zaldizkoak



**Materiala**

Zaldi faltsua

**Jantziak**

Jaka gorria

Bonet gorria

# Iturriak:


- Dantzaz ele, Garaztarrak 40 urte, Mixel Aurnague, Marcel Etchehandy, Annie Etcheverry-Bordarrampé, Antton Lucu eta Denise Olhagaray.
- Bilketaren webgunea: NOGARET Joseph Une parade charivarique à Estérençubi. 1926, Bulletin du Musée basque n°1-2- https://prentsa.bilketa.eus/ark:/27020/bmb42?posInSet=34&queryId=e59a3bac-73ec-46c5-ae7e-72419676bd66
- Mintzoak: https://www.mintzoak.eus/eu/uharte-garazi/pasarteak/223-3
- LUKU Antton, Libertitzeaz, Iruñea, Pamiela, Saio eta Testigantza, 2014, 492 orrialde
- La Provence egunkariaren webgunea: https://laprovence.shorthandstories.com/napoleon/en-images/
- ITCAINA Xabier, Baigurako bolantak, toberak eta ohidura dantzatuak Irisarrin